

GALBAHEA

Ramon Zubizarreta Landakanda: "Urrian 81 egingo ditut eta urteak dira alajaina! Nik txinoek baino lan gehiago egin dut, ordu pila pasa ditut panderoa jotzen. Horregatik, ondo nagoen bitartean utzi nahi diot plazetan jotzeari. Hala ere, ondo baldin banago zein edo zein emanaldira joango naiz, baina kontatuak izango dira, gutxi, alegia. Nik nahi dudana da gaztelaniaz esaten den moduan *una retirada a tiempo es una gran victoria*, lagun asko ikusten baititut bertolariak, zein pandero joleak, taula gainean jotzeari ezin utzirik, behartuta bezala. Hori ez dut niretzako nahi eta ondo nagoen bitartean uztea hobe dela pentsatzen dut"... "1998an oso gaizki egon nintzen, peritonitis baten ondorioz. Hain gaizki nengoen Lajari esan niola ez nuela berriro ere joko. Hortaz, Lajak beste pandero jotzaile bati esan zion berarekin jotzeko, Mikel Alustizari, hain zuzen"... "1983. urtean apuntatu egin nituen emanaldiak: 142. Beti hara eta hona ibiltzen nintzen, astirik gabe. Gogoratzen dut askotan esaten nuela zortzi eguneko joango nintzatekeela kartzelara, lo egiteko".

(Noticias de Gipuzkoa, 2013-06-02)

Kepa Junkera: "Ni beti izan naiz Auntxa, Sakabi, Laja, Epelde eta Zendoia bezalako trikitilarien fana. Mundu horrek oso inportantea izaten jarraitzen du nire bihotzean. Gero, bizitzako zirkustantziegatik edo, proiektu ezberdinak izan ditut, eta asko bidaiatu dut mundu osoan. Guretzako ez ezik, trikitixa beste belarri batzuentzako ere interesgarria izan zitekeela pentsatu nuen, eta horretan aritu naiz. Alde horretatik ez zait iruditzen urrundu egin naizenik"... "baliteke publikoak nire parte hartzea ezustean hartzea, baina hori publikoaren kontua da, eta logikoa izan daiteke. Ikuskizunaren munduan pertzepzioak oso ezberdinak izaten dira maiz egilearen eta hartzailearen artean. Adibidez, nik konposizio berri bat egin eta modu ez oso tradizionalen jotzen baldin badut, pentsatzen dute ez zaidala betiko trikitixa gustatzen. Niri zuzenean hori horrela den galdetzen badidate, nire erantzuna ezezko biribila da. Guztiz alderantzizkoa da; batetik, familiarik datorkidalako eta bestetik, aipatutako trikitilari handi horiei guztiei sekulako errespetua diedalako".

(Urola Kostako Hitza, 2013-03-15)

Hemerotekatik berreskuratua. 2011ko uda sasoiari begira, **Beñat Sarasol** argian idatzitako artikularen zati bat: "Segur naiz *Alaitz eta Maider performing first* album izeneko bira egingo balute, *Txanpon baten truke, Amets bat, Atxutxale, Hablame en cristiano, Miñi...* eta gainontzeko klasi-ko hilezkoak izango liratekeela nagusi uda osoan. Shakira arrastean sartuko genuke eta deskuidoan Euskal Herriaren independentzia ere gertuago egongo litzateke. Zaharruno bidean gauden gure belaunaldikook belaunaldi gazteenekin egingo genuke bat herriko plazetan, lehenengoak beren nerabe garaiaz mira egiten, bigarrenek gure historia musikaren zati loriatsuetan loriatsuena -trikipoparen urrezko garaia- ezagutzeko parada edukiz".

"HAUSPOAREN MUNDUA" ERAKUSKETA, AMOREBIETA-ETXANON

Haizetara jaialdiarekin lotuta, Kepa Junkeraren musika tresnez osatutako erakusketa ikusgai jarri dute Amorebieta-Etxanon. Ekainaren 21, 22 eta 23an ospatu da Kale Musikarien Nazioarteko Lehiaketa, aurtien zortzigarrenez, eta lehiaketarekin lotutako ekintzen artean, hauspodun musika-tresnak biltzen dituen erakusketa antolatu dute. Uztailaren 3ra arte egongo da ikusgai erakusketa Zelaieta Aretoan.

BAZKIDEEN DATUAK EGUNERATZEKO DEIA

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak bazkide guztien datuak eguneratuta dituela baieztatzeko, ohar honen bidez doakizue horrexetarako deia. Bazkide egin zinenetik hona, etxer aldatu bazara, e-mail berria erabiltzen baduzu edota beste daturen bat oker izan dezakegula uste baduzu, eman iezaguzu horren berri.

Ikastaro, afari, emanaldi edota bestelako hitzorduen berri sarri zabaltzen du elkarteak e-mail bidez eta, urte amaieran, oparia ere bidaltzen diegu bazkide guztiei etxera. Hortaz, oparirik edota e-mailik ez baduzu jaso, daturen bat oker daukagun seinale! Zure datuak eguneratzeko, deitu **943 83 28 28** zenbakira edo idatzi **trikitixa@trikitixa.net** helbidera.

Mila esker!



2013ko uztaila · 49

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

EHE Allemedi 1 · 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28 · trikitixa@trikitixa.net

Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.net · www.trikimailua.com

Emanaldietako fakturazioaren kudeaketarako zerbitzu berria martxan

Autonomo gisa aritzen ez diren trikitilarien kezkak bultzatuta, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak fakturen kudeaketa lana eskainiko du aurrerantzean. Interesa lukeen musikariak Artista Kontratua sinatzeko aukera izango du Elkartearekin.

Artista Kontratuaren inguruko azalpenak:

- "Obra amaierako" kontratu hau autonomo ez direnei zuzendua dago.
- Iraupena: urtebete edo bi urte.
- Soinu zein pandero jole bakoitzak, urteko, 20€ ordaindu beharko du.
- Hilabete bukaeran hilabeteko saio guztiei dagokien nomina jasoko du, fakturazio osoari dagozkion Gizarte Segurantzaz, IRPF-a eta gainerakoak kenduta.
- Urtean behin T-10 inprimakia jasoko du erabiltzaile bakoitzak.

Saio bakoitzeko altak eta bajak:

- Saio bakoitzeko Gizarte Segurantzaz alta eta baja eman beharko da.
- Asteburuko saioa denean: jakinarazpena osteguna baino lehen (hau barne) helarazi beharko zaio Elkarteari.
- Aste barrukoetan: gutxienez bi egun lehenago jakinaraziko da.
- Nomina bakoitzeko trikitilari zein pandero jole bakoitzak 12€ ordaindu beharko ditu (nominatik bertatik kenduko zaizkio).



- Jubilatuen kasuan, saioaren egunean pentsioa eten egingo zaio eta nominatik kobratuko du egun hori. Biharamunean, atzera pentsioa jasotzen jarraituko luke.
- Langabeziaren kasuan, beste horrenbeste.
- Interesdunak, lanbide arruntean bajaran egonez gero, ezingo du saiorik eskaini.

Zerbitzu hau erabili ahal izateko ezinbestekoa izango da Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen bazkide izatea

Trikitilarien betebeharren berri edo azalpen gehiago nahi izatera, Elkartera jotzea besterik ez duzue: **943 83 28 28** edo trikitixa@trikitixa.net

IGANDEROKO DANTZA SAIOARI TRIKITILARIEN ESKER ONA, ARISTERRAZUN



Igande arratsaldero, oinetako erosoak hartuta, Aristerrazuko erromeriara biltzen den dantzazale taldetxoak dozenaka trikitilarien esker ona jaso du. Joan den ekainaren 9an, erromeria handi batekin omendu dituzte, hutsik egin gabe, erromeriatara elkartzen diren entzule zein dantzariak.

“Jaiero elkartuta, familia moduko bat osatu da Aristerrazun eta ondoren, udan, edozein herriko festatarare ere azaltzen dira”. Antolatzaile lanetan aritu den losu Arrizabagala *Izer*-en hitzak dira. “Dantzan hastea, gehienentzat, hain zaila gertatzen den garaian, hauek berehala hasten dira eta babes handia da hori trikitilariarentzat”. Jarrera horrekiko esker onez, beraz, dozenaka trikitilari elkartu eta erromeria berezia antolatu zieten “dantzari bezala, baita erromeria entzutera etortzen direnei ere”.

Egun osoko festarekin batera, jatetxearen kanpoaldean “bate-tik oroigarria eta bestetik, Aristerrazuren historia bildu duen argazki sortarekin osatutako murala” jarri zituzten erromeria zaleen omenez.

PLENTZIAN OSPATU DA BIZKAIKO TRIKITIXA EGUNA

Bizkaiko Trikitixa Elkarteak ekainaren 1ean ospatu du Bizkaiko Trikitixa Eguna. Ikasturte amaierarekin batera, urtero bezala, Bizkaiko herri batek hartzen du jai honen ospakizuna bere kale eta plaza artean. Getxo, Durango-lurreta eta Loiu-ren ostean, aurreko Plentziari egokitu zaio. Jai-eguna eguerdian hasi zen Eleiz plazan. Kanpakiak jotzerako bazeuden bertan hainbat trikitilari, eta minutu batzuk pasa ostean plaza trikitixa eta panderoz bete zen, baita trikiti zale, kantari eta dantzari ere.

Bizkaiko herri askotatik etorri ziren trikitilariak (Plentzia, Gernika, Portugalete, Getxo, Bilbo, Gorliz, Erandio, Bermeo, Gatika, Barrika...), baita Zumaiatik ere. Plentziako kaleetatik zehar, kalejiran, bazterrak alaitu ostean, bazkaria izan zen Plentziako Jai-Alai frontoian eta arratsaldean, erromeria, Salto-ka taldearekin Astillero plazan. Ofizialki erromeriarekin batera egitaraua bukatzen bazen ere, egon zen trikitixa doi-nuak goizaldera arte iraunarazi zituenik ere.

BITE



HEMEN DIRA TRIKITILARI GAZTEEN TXAPELKETAK



Uda gerturatu ahala, hainbat herri eta auzotan antolatzen dira Trikitilari Gazteen Txapelketak. Maiatzeko azken asteburuan jokatzeko da sasoiko aurrenekoa, Getarian, Euskal Jai Egunarekin. Hona hemen, aurtengo irabazleen berri.

Getariako Trikitilari Gazteen Txapelketa (2013-05-25):

- Josune Arakistain (Lastur, 17 urte) eta Alaitz Eskudero (Deba, 16 urte)
- Julen Alonso (Orio, 16 urte) eta Eneritz Aulestia (Zarautz, 17 urte)
- Leire Etxezarreta (Arrasate, 15 urte) eta Maider Azkarraga (Arrasate, 17 urte)

Datozen asteetarako hitzorduak: Orion ekainaren 29an jokatzeko da txapelketa, Lesakan ekainaren 30ean, Hernaniko Martindegi auzoan (Oialumen) uztailaren 7an eta Zestoa-ko Arroa Behean uztailaren 14an. Urteroko gisan, abuztuko Andra Mari Jaietan ospatuko da Zeanurin Euskadiko XXXIII. Trikitilari Gazteen Txapelketa.

ANTON AGIRRE “PITOLIS” SOINU JOLEA HIL DA EHUN URTE ZITUELA

Ehun urte beteta joan da gure artetik Anton Agirre Beristain “Pitolis”. Garai bateko soinu-jole guztien gisan, Zaratamoko trikitilariak bere kasa, belar-rriz, ikasi zuen jotzen. Hark kontatzen zuenez, “14-15 urte zituela irratian doinu bat entzun, gogoan hartu, eta aziendak zaintzen ari zen bitartean doinu hura ateratzeko eginahaletan” aritzen zen gurasoek oparitutako soinuarekin. 1912an Zaratamon jaioa, Arrigorriagan bizi zen. Hain zuzen, Arrigorriagako Udalak eta Bizkaiko Trikitixa Elkarteak omenaldia egin zioten 2007an eta bere irudidun estatua inauguratu zuten herrian.

Harrigarria badirudi ere, oraintsu arte soinu jotzen aritu da etxean. Horren erakusgarri, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak duela lau urte, 97 urte zituela, egindako grabazioa da. Hona-ko lotura honetan duzue ikusgai: <http://www.trikimailua.com/bideoak>



Udan kaleratuko da “FABOREZ 07” diskoa

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen lan-ardatzetako bi uztartzen dituen proiektua da Faborez disko bilduma; dokumentazioa eta transmisioa elkartzen dituen. Zazpigarren ale honetan, Urola bailarako trikitilarien lana jasotzen da bereziki. Aurreko aleen egiturari eutsita, lau bikotek, bosna pieza grabatu dituzte soinu eta pandero hutsean.

Mamen Maltzeta eta Nerea Ugarte: Juanito Garate *Maltzeta*-ren alaba Mamenek, aita zenaren arrastoa ekarri du lan honetara. Besteak beste, erromerietan hamaikatxo aldiz abestutako “Hamabost hamasei urte” pieza ezaguna. Aitak inoiz grabatu ez, eta alabak egin du lan hori. Maltzetaren piezekin batera, Elgeta edota Sakabiri ikasitakoak ere jaso ditu Mamenek.

Barrenola anaiak: Sakabiri ikasitako dantza solteko piezak ekarri dituzte nagusiki Barrenola anaiak Faborezen zazpigarren alera. Edozein modutan, arnasa hartu eta lotuan dantzatzeko, Lajari ikasitako balsa ere bildu dute.

Zabale anaiak: Garai bateko grabazioetatik hartu dituzte hainbat pieza Zabale anaiak; Gelatxoren eta osaba duten Uitteren *casette* zaharretatik, hain zuzen. Epelarre eta Zabaletaren doinuekin batera, Federico Cortok txisturako sortutako fandangoa ere ekarri dute diskora.

Jauregi eta Andere: Urola bailarako musikariei ikasiak entzun litezke Jauregik aukeratutako piezatan. Imuntzo edo Lajari entzundakoak, baina baita Poxpi saxofoi jolearen erreperitorioetik hartuak ere.

Irigo Egia teknikariarekin eta Mikel Markezen laguntzaz grabatu da diskoa, Hernaniko Oh Brother! estudioan, maiatza bukaera eta ekaina hasieran.



Italiara bidaia egin eta erreportajea osatzeko asmoan, diru bilketarako “crowdfunding” kanpaina abian jarri du trikiti zale talde batek



“Triki-eromena” terminora itzul liteke, ingelesarekin egindako *trikifollie* hitz jokoa. Egitasmo berri bat bataiatzeko aukeratu duten izena da *trikifollie*. Triki-eromena. Trikitixak zoratzen ditu, izan ere, ikus-entzunezko proiektu honen protagonistak.

Trikitixa ikasle heldu koadrila batek Italiara, Castelfidardora, joateko asmoa du. Bidaia grabatu egingo dute eta, bizipen horiez gain, soinu txikiaren historia azalduko duen dokumentala osatzea da helburua.

“Pantailaratzeko oso interesgarriak ziren bi historia bateratzen zirela ikusi genuen. Batetik, bost egun iraungo duen bidaian gure protagonistek edukiko duten elkarbizitza dibertigarria; trikitixarekiko zein musikarekiko duten grina kontatuko dugu. Adinean aurrera doan musikari talde zale honetan ia haurrena ematen duen ilusioa eta bere burua hobetzeko duten gogoak ikustea oso erakargarria zaigu. Bestetik, soinu txikiaren historia, jatorria, Euskal Herrira nola iritsi zen eta tresna honen errotzea biltzeko aukera paregabea iruditu zaigu”. Proiektuaren bultzatzaileek halaxe deskribatu dute beren asmoa. “Egitasmoak 20 minutuko dokumental musikala eta telebistarako 52 minutuko bertsioa hartzen ditu bere baitan”.

Internetek eskaintzen dituen aukerak baliatuta, Crowdfunding kanpaina abiatu dute. Norbanakoen ekarpenekin 9300 euro dagoeneko jasota, bigarren txandari ekin diote. Diru-bilketaz gain, ikus-entzunezko materiala edota itzultzaile lanetan lagunduko dien jendea ere behar dute. Triki-follie-ren xehetasun guztiak eta laguntza emateko bidea: <http://goteo.org/project/trikifollia/home>



HAMAIA IKUSTEKO! 90eko hamarkadara Flash back modukoa!

Hamalau eta hamabi urte zeramatatzaten, hurrenez hurren, Maixa ta Ixiarrek eta Lin Ton Taunek kontzerturik eman gabe. Udaberri honetan ordea, atzera, taula gainean ikusi ditugu.

Maixa ta Ixiar bikote gisa aritu dira Itziarko Erromeria Egunean. “Gonbiteak aldarde onean harrapatu eta baiezkoa” eman zutela azaldu du Ixiar Orejak. Baina argi utzita, Itziarko ez zela itzulera

baten lehen agerraldia. Emanaldi haren haritik hainbat gonbidapen jaso dituzte eta “gonbiteak pozgarriak eta eskertzeak izan diren arren” ez dute bikote moduan jarraitzeko asmorik.

Lin Ton Taun taldeak beraie herrian, Zestean, antolatutako Patana Fest jaialdian airtzeko aitzakian ekin zion entseguari. Eta hauek bai, behin hasita, badituzte kontzertu batzuk udarako lotuta. Villabonan uztailaren 26an, Zarautzen abuztuaren 10ean eta Azkoitian abuztuaren 17an arituko dira.

